



URRIAREN 7KO MANIFESTUA LAN EGOKIAREN EGUNA



Lan Egokiaren eguna, urriak 7, baliatuz,
EGKtik ondorengo manifestua
zabaltu nahi dugu.

EGKn emantzipazioa bizitza-proiektua modu autonomoan eta osoan egitea ahalbidetuko duen prozesu bezala ulertzen dugu. Hainbat faktorek ordea, prozesua atzeratzen dute, eta horietako bat da lan merkatuaren konfigurazioa eta gazteriaren prekarietatea.

Gazteriarentzako "prekarietate" hitza oso ezaguna da. Harekin bizi gara, ia egunero berrietan hartaz hitz egiten entzuten dugu: "Pertsona gazte batek irabazten duena baino %120 gehiago irabazi beharko luke etxebizitza bat eskuratu ahal izateko", "emakume gazteek batez beste 266 euro gutxiago irabazten dute", "lanera bidean zihoan 26 urteko langilea zendu da".

Azken aldian, gainera, langabezia jaitsi dela eta jaisten jarraitzen duela esaten da, hau da, lan merkatua hobera doala. Baina benetako errealitatea beste bat da, izan ere, pertsona gazteok batez beste gutxiago irabazten jarraitzen dugu. Ulertu ezin diren praktikak eta bekak onartu behar ditugu, lana aurkitzeko kanpora joan behar gara (jakin gabe bertan hobeto egongo garen edo ez), kontratu gabe lan egiten dugu edo autonomo faltsuak gara. Hobetu ez den errealitate bat da, zeren aldi baterako kontratuei, denbora partzialeko kontratuei edo soldata baxuei aurre egiten jarraitzen dugu.

DATU ESANGURATSUAK *Iturriak: Gazteen Euskal Behatokia eta Eustat*



Batez besteko soldata:
1.185 (2019)

Hala ere, 2017. urtean EGKn gaiari buelta bat ematea pentsatu, eta Euskadiko gazteriarentzat lan egokia eta hobetu beharrekoa zer den jakiteko kanpaina abian jarri genuen.

Gure sare sozialetan Zer da Lan Egokia zuretzat? galdera bota genuen gure elkarten iritzia jasotzeko asmoz. Gainera, gazteak aurkitzen diren esparruetara jo genuen, haien iritzia gertutik ezagutzeko. Bizitza proiektu bat garatu ahal izateko lana nolakoa izan beharko lukeen ezagutu nahi izan dugu, beti kontutan izanda gure eskubide sozio-laboralak errespetatzen direlarik.

Gaur, Urriak 7, Lan Egokiaren Nazioarteko eguna den honetan aldarrikapen hauek berriro ere mahai gainean jartzeko unea da. Honela, administrazioen aurrean pertsona gazteen kalitatezko enplegua eta lan egokia sustatu eta defendatu ahal izango dugu, eta aldi berean, gai honen garrantziaz gizartea kontzientziatu.

URRIAREN 7KO MANIFESTUA

LAN EGOKIAREN EGUNA

Bekak eta praktikak

Administrazioek lan egonkortasuna eta enpleguaren kalitatea sustatu beharko lukete, horregatik horrelako formulak kontratu arruntengatik ordezkatu beharko lirarteke edo neurri lotesleak ezarri. Gainera, praktikak kurrikularrak izan beharko lirarteke bakarrik, modu horretan lanpostuak ordezkatzeko saihestuko zen. Bestetik, beharrezkoa da kontrola eta laneko ikuskapenak handitzea bekak benetan formakuntzazkoak direla eta lanpostuen ordezkapen bat ematen ez dela ziurtatzeko. Azken finean, kontuan hartu behar da praktiketan dauden pertsonen egiten duten lana ez dela enpresaren ekoizpenaren helburuen parte.

Gizon eta emakume gazteen arteko berdintasuna

Gizon eta emakume gazteen arteko berdintasunarekiko konpromisoa ezinbestekoa da. Desberdintasuna imajinatzen duguna baino lehen hasten da eta lan munduan sartzen garenean areagotzen da, horregatik beharrezkoa da politika guztietan genero-ikuspegia txertatzea. Bestalde, lan munduan berdintasuna sustatzeko berdintasun-planek duten garrantzia azpimarratzekoa da. Hori dela eta, horiek sustatzea eta egiazko ikuskaritzan plan egokiak ematea guztiz beharrezkoa da.

Lan diskriminazioa

Gaur egun jatorriagatik, identitateagatik edo adinagatik lan diskriminazioak errealitate bat izaten dirau eta horrekin bukatu beharra dago. Horretarako administrazioek, enpresek eta hainbat gizarte eragilek elkarrekin lan egitea oso beharrezkoa da.

Lan emigrazioa

Beka eta ekintzailatzarekin batera gazteei eskaintzen dituzten beste irtenbide "magiko" bat laneko emigrazioa da. Egia da pertsona gazte asko kanpora joaten direla horrela nahi dutelako, baina beste askoren arrazoia beste aukera bat ez izatea da. Kanpora joan diren gazte horiei informazio erreala eman behar zaie; ikasketen homologazioa eta tramiteen erregulazioa erraztu behar zaie; enplegu duina bultzatzen duten enplegu planak eta neurriak garatu behar dira; kanpora joan

behar izan direnak itzultzerakoan bere eskubideak galtzen ez dituztela ziurtatu behar dugu; gazteriaren lan emigrazioari buruzko ikerketak bultzatu behar dira eta haien egoera sakonki ezagutu behar da. Azkenik, itzulera-politikan lan egitea eta itzultzeko aukerak eskaintzea ezinbestekoa da.

Gutxieneko soldata duina

Gazteen eta gizartearen arteko soldata arrakala existitzen da eta horrekin bukatu beharko litzateke. Gainera, arrakala hori handitu egiten da emakume gazteez hitz egiten badugu. Gaur egungo gutxieneko soldata ez da nahikoa bizitza proiektu bat aurrera eramateko, hori izanik gazteen prekarietatearen arrazoietakoa bat. Gazteen laneratzea baldintza-berdintasunean emateko beharrezkoa da gai honen inguruko eztabaida bat sustatzea eta soldatei muga berriak ipintzea.

Lan osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa

Lan osasunaren eta prekarietatearen harremana lan istripuetatik zein gaixotasunetatik haratago doan egoera bat da. Izan ere, gazteontzat enplegua sustatzeko aitzakiarekin eta langabezia eta gizarte bazterketaren mehatxupean, erizaindegira zuzenean bidaltzen gaituzten lan-baldintzak onartzeraren behartzen gaituzte. Osasuna eskubide bat da, eta bermatu behar da langile gazte guztiek haien lan postuarekin egokia den formakuntza eta prebentzioa jasotzen dutela. Gainera, ikuskaritza egokiak burutu behar dira, erantzukizunak eskatuz eta iruzurrezkoa egoerak kontrolatuz.

Behin-behinekotasuna, jardunaldi partziala eta prekarietatea

Prekarietateak hamaika aurpegi dituen arren, gazteriarekin gehien lotzen ditugun bi alderdi kontratuaren behin-behinekotasuna eta jardunaldi partzialak dira. Behin-behinekotasunaren legezkotza ez den erabilpen bat egiten da eta gainera, jardunaldi partzialean sinatzen diren kontratu asko, aparteko orduekin, egunean 8 ordukoak baino gehiagokoak

bihurtzen dira. Hau gutxi balitz, kasu batzuetan ez da kobratzen edo beltzean egiten da. Kontratu hauen erabilpen egokia ziurtatu behar da.

Pertsona gazteen aniztasunari arreta jarri

Gazteria gizartea bezain anitza da eta artean dugu ere aniztasun funtzionala. Aniztasun horri arreta jartzea eta gazteriaren barne dauden kolektibo ezberdinen behar zehatzen hausnarketa eta analisia egitea oso garrantzitsua da, bai gizarte osoari bideratutako enplegu neurrietan zein gazteriari zuzendutako enplegu neurrien artean ondorengoak daude: enpresak informatzea eta praktika onak sustatzea, administrazio publikoen koordinazioa, irisgarritasunaren hobekuntza, sentsibilizazioaren eta aurreiritzien ezabapenen alde lan egitea, sindikatuen inplikazioa, laneko baldintzen hobekuntza, esperientziak partekatzeak espazioak eraikitzea, legean ezarritakoa betetzea...

Ekintzailatza aukera bezala eta ez konponbide "magiko" bezala

Ekintzailatza modan dago, hala ere, desenpleguaren aurrean ezin da konponbide "magiko" bezala erabiltzen jarraitu. Gaur egungo neurri publiko asko ekintzailatzara bideratuta daude, hau sustatu nahi dute eta alde positiboak azpimarratzen dituzte. Ordea, beharrezkoa da alde txarrei buruz ere informatzea. Bestetik, emaitzak ezin dira Gizarte Segurantzaren emandako autonomoen aldetik arabera neurtu, politikak haien egoeraz eta lan-baldintzaz arduratu behar dira. Gainera, gazteriaren ikuspegia kontuan izan behar da, tramiteak sinplifikatu eta ekintzailatzaren kalitatea kontuan hartzen duten politikak eratu behar dira, arriskuak murriztuz eta hiritartasun aktiboaren alde eginez.

Laneko bizitzaren eta pertsonalaren arteko kontziliazioa

Kontziliazioa pertsona guztion lan eskubide bezala ulertzea bizitza pertsonala (zaintzaren arloa barne) eta profesionala orekatu ahal izateko. Hau da, lanean dauden pertsonen ongizate psiko-soziala hobetzeko neurriak bezala planteatu behar da kontziliazioa bera.

Iruzurrezko baldintzen ikuskapenak

Iruzurrezko hainbat lan egoera daude. Gaur egun gazteriaren artean autonomo faltsuak, lan-kontraturik gabeko gazteak, lanpostuak ordezkatzeko dituzten bekadunak, aparteko orduak egiten dituzten gazteak, laneko osasuna larriagotzen dituzten lan-baldintzak... aurkitzea ohikoa da. Hori dela eta, laneko ikuskaritzak oso garrantzitsua dira. Gainera, salaketak egiteko mekanismoak hobetzea ezinbestekoa da gazteok aske adierazi ahal izateko eta beldurrik ez izateko.

Gain kualifikazioa

Lan egoki bat formakuntza garaian ikasitako konpetentziak eta gaitasunak garatzeko aukera ematen duen enplegu enkaxatu bat da. Nahiz eta enplegua ikasketen sektorekoa izan, askotan gazteok gain kualifikatuak gaude baztertu gaituzten lanpostuetarako eta hori areagotu egiten da emakume gazteen kasuan. Gazteak izateagatik ez dugu zertan atsegin-garriak ez diren, frustraziora eramaten gaituzten eta soldata baxuago baten truke diren lanak egin behar.

Gazteentzako lan aukerak

Pertsona gazteei lehen lan esperientziak eskaintzen zaizkie eta normalean lanekoak ez diren praktikak edo beka izaten dira. Nahiko zabalduta dagoen praktika bat da eta hauek eskaintzearen argudioa gazteen esperientzia faltan oinarritzen da. Ordea, esperientzia praktikoa lan munduan kontratu arruntaren bitartez lortu beharko litzateke edo aurretik ikasketek dagozkien curriculum-praktikak eginez. Eskubide osoko benetako aukera laboralak beharrezkoak dira.

Bukatzeko, eskerrak ematea kanpainan parte hartu zuten pertsona gazte guztiei. Eta baita gazteen lan egokien alde lanean diharduten guztiei. EGKn ere, lanean jarraituko dugu gazteok lan baldintza egoki eta duinak izatearen alde.